



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Natalia Labourdette sopranoak eta Victoria Guerrero piano-jotzaileak *Petite Mort* interpretatuko dute Arriaga Antzokiko foyerrean

- Egitarauak Berg, Fauré, Poulenc, Korngold edo Barberren konposizioak biltzen ditu; erotismoa, heriotza eta bakardadea bezalako kontzeptuak jorratzen dituzten piezak dira.
- Emanaldia bihar martxoaren 21ean, asteartea, arratsaldeko 19:30ean izango da eta urteko lehen seihilekoan zehar luzatuko den LIED ARRIAGAN zikloak proposatzen dituen sei emanaldietatik hirugarrena da.

Bilbo, 2023ko martxoaren 20a.- Arriaga Antzokiko foyerrak LIED ARRIAGAN zikloari eutsiko dio bihar asteartean berriz ere (hilak 21, arratsaldeko 19:30ean). 2023ko lehen seihilekoan sei kontzertu eskainiko dira ziklo honen barruan, piano eta ahots formatuan, eta jada hirugarrena dugu hauxe.

Oraingo honetan, errezitala musika klasikoko zirkuluetan zeresan handia ematen ari diren Espainiako musikako bi artista berriren eskutik izango da. Alde batetik, **Natalia Labourdette** soprano madrildarra dugu: adierazkortasun epela eta kantu teknika dotorea ditu, eta ibilbide musikal interesgarri bat eraikitzeko urrats sendoak ematen ari da, erregistro ugari dituela eta egile oso desberdinak interpretatzeko gaitasuna duela erakutsiz.

Berarekin batera, **Victoria Guerrero** dugu, Jerezko pianista bikaina, bereziki liederista gisa gailentzen ari dena (hainbat sari jaso ditu horregatik Alemanian) eta sopranoari laguntza zehatza eskaintzen diona.

Bihar iritsiko dira Labourdette eta Guerrero Arriaga Antzokira *Petite Mort* programa interpretatzeko; bikote artistikoak 2022ko ekainean argitaratu zuen CDan, Genuin Classics diskoetxearekin. Egitarauak, besteak beste, A. Berg, G. Fauré, F. Poulenc, E. W. Korngold edo S. Barberren piezak biltzen ditu, zeinak erotismoa, heriotza eta bakardadea bezalako kontzeptuak jorratzen baitituzte.

Lied Arriagan zikloa

Natalia Labourdetteren eta Victoria Guerreroren kontzertua Arriaga Antzokiak ziklo horren baitan programatutako sei kontzertuetako hirugarrena da. Hurrengoa apirilaren 18an izango da, Vanessa Goikoetxearen eskutik. Sopranoak, Rubén Fdez. Aguirre pianoan duela, omenaldia egingo dio Isasiri, Isasi, Bilbao-Berlín izeneko errezitalean. Bosgarren proposamena maiatzaren 23an izango da, eta Robert eta Clara Schumannen lieder musika interpretatuko dute Anna Alàs i Jové mezzosopranoak eta Aurelio Viribay pianistak.

Azkenik, Lied Arriagan zikloari amaiera emateko, David Alegret tenorrak eta Rubén Fdez. Aguirre pianistak Josep Carner egile katalana gogoratuko dute Carneriana izeneko kontzertuarekin. Ekainaren 13an izango da hori.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 15 euro (beherapenekin)
- Salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus